004.-OBRA, ERAIKUNTZA, ETA INSTALAZIOEN GAINEKO ZERGA

004.-IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES INSTALACIONES Y OBRAS

1. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek ordenantza honen bitartez, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezarri eta exijitzen du, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauen eta tributuari dagokion Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera. Ordenantza honek eranskinean tarifa aplikagarriak jasotzen ditu.

2. artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

2. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Zerga-egitatetzat hartuko da lan edo hirigintza lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea — horretarako lizentzia izan ala ez —, baldin eta lizentzia ematea Udal honi badagokio.

4. artikulua

Ondokoak izango dira zergari loturiko zerga-egitatearen adibide batzuk:

1.-Solairu berridun mota guztietako eraikuntza edo instalazioetako eraikitze-obrak.

2.-Mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.

3.-Mota guztietako eraikuntza eta instalazioen estrukturan eragin dezaketen aldaketa edo berritze-lanak.

4.-Mota guztietako eraikuntza eta instalazioen kanpoko itxura aldatzeko obrak.

5.-Eraikuntzen barne antolamendua aldatzeko obrak, beraien erabilera edozein delarik ere.

1.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo, establece y exige el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

Artículo 2

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

2.- HECHO IMPONIBLE

Artículo 3

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija la correspondiente licencia urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, siempre que su concesión corresponda a este Ayuntamiento.

Artículo 4

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

1.- Las obras de construcción de edificaciones o instalaciones de todas clases de nueva planta.

2.- Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.

3.- Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de toda clase existentes.

4.- Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

5.- Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.

6.-Lurraren Legearen36. artikuluan azaltzen diren eta behin-behineko izaerarekin egin behar diren obrak.

6.- Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el artículo 36 de la Ley del Suelo.

7.-Zerbitzu publikoen instalaziorako obrak

7.- Las obras de instalación de servicios públicos.

8.-Lur mugimenduak(lurreztatzeak, lauketak, indusketa eta lurreztatzea). Horiek ez dira kontuan hartuko baldin eta onartutako edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza Proiekturen batean egin beharreko obratzat hartzen badira, eta mugimendu horiek zehaztuta eta programatuta badira.

8.- Los movimientos de tierra, tales como desmontes, explanaciones, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.

9.-Eraikuntzen erauzketa, aurri zorian daudela aitortuetan salbu.

9.- La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.

10.-Aparkaleku, industria, merkataritza edo lanbide jarduera, zerbitzu publiko edo lurrazpiari ematen zaion beste erabilera batzuetara bideratutako lurpeko instalazioak.

10.- Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11.-Bide publikotik ikusteko moduan egiten den propaganda kartelak jartzea.

11.- La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública

12.-Hirigintza lizentzia eskatzen duen edozein obra, eraikuntza eta instalazioa egitea,beti ere obra horiek baliabide ekonomikoak jartzea eskatzen badituzte gaitasun ekonomikoa agerian geratzen delarik.

12.- Cualquier obra, construcción o instalación sujeta a licencia urbanística, que implique inversión de recursos económicos acreditativos de una capacidad económica.

5.- artikulua

Artículo 5.

1.-Zerga honen pean ez dira egongo Udal honi dagokion titulartasun dominikaleko higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, obraren jabe izateko baldintza Udalak betetzen badu.

1.- No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponde a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

2.-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren ordainketatik salbuesten da, Estatua, Euskal Autonomi Elkartea, Lurralde Historikoak edo Toki Entitateak berauen jabe izanik eta berari lotuta egonik, errepidetara, trenbidetara, portutara, aireportutara, obra hidraulikotara, herrien eta hauen hondakin uraren saneamendutara zuzenean destinatuko diren eraikuntza, instalazio edo obrak burutzea, nahiz eta berauen kudeaketa Organismo Autonomoek burutu, bai inbertsio berriko obren kasuan, eta bai kontserbazio obren kasuan ere.

2.- Se exime del pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, las Comunidades Autónomas, los Territorios Históricos o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación.

3.-Salbuespenak: Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren ordainketatik salbuetsita egongo dira ondorengo obrak:

3. Exenciones: estarán exentas de pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras las siguientes obras:

3.1.-Mankomunitateak eta Udalerri-Taldeak jabe diren edozein eraikuntzak, instalazioak eta obrak egitea, beti ere entitate horietan Hernaniko Udala barruan egonez gero.	3.1 La realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños Las Mancomunidades y Agrupaciones de Municipios en las que esté integrado el Ayuntamiento de Hernani.
3.2.-Bereziki hartuko dira kontuan eta, hortaz, zerga ordaintzetik salbuetsita gera daitezke ezbehar batek eragindako eraikuntzen birgaikuntza edo berreraikuntza lanak, subjektu pasiboak aldez aurretik eskakizuna behar bezala justifikaturik aurkezten badu eta Ogasun eta Ondarea – Kontuetarako Batzorde Bereziko Batzordeak aldeko irizpena ematen badu.	3.2 Tendrán especial consideración y podrá declararse exenta del pago del impuesto la realización de obras de rehabilitación o reconstrucción de edificaciones afectadas por un siniestro, previa solicitud debidamente justificada del sujeto pasivo y dictamen favorable de la Comisión de Economía, Hacienda y Patrimonio.
3.3.-Gizarte etxebizitzak eraikitzeko obrak, baldin eta etxebizitzen prezioa, gehienez, behin-behineko kalifikazio garaian indarrean dagoen modulu haztatu aplikagarria 1.1eko koefizienteaz biderkaturik lortzen den emaitza baino handiagoa ez denean	3.3 Las obras de construcción de viviendas sociales cuyo precio sea como máximo el resultado de multiplicar el módulo ponderado aplicable, vigente en el momento de la calificación provisional, por el coeficiente hasta 1,1 inclusive.
3.4.-Herri ikastetxeetan egin beharreko obrak, betiere obra bukatu ondoren Udalari eraikinarenmantentze-lanak egitea badagokio* (aldaketa GAO 2012-09-27)	3.4 Las obras realizadas en Centros docentes públicos cuyo manteniendo corresponda al ayuntamiento* (modificación BOG 24-09-2012)
3.5.-Jabekideen elkarteek egindako diruz lagundutako obrak, betiere obra horiek egiten badira jabari publikotik jendea bizi den eraikinetara joateko traba arkitektonikoak kentzeko, igogailu baten bidez, edota gurpil-aulkia beharrezkoa dutenentzat jasotzaile baten bidez.	3.5 Las obras subvencionadas a comunidades de propietarios para eliminación de barreras arquitectónicas entre la vía pública y los accesos a edificios residenciales mediante la instalación de un ascensor, elevadores para personas que precisen silla de ruedas etc.
4. Hobariak:	4. Bonificaciones:
4.1. Eraikuntzek, instalazioek edo obrek %95era arteko hobaria izango dute, interes bereizikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Osoko Bilkurak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.	4.1 Gozarán de una bonificación de hasta 95% de la cuota tributaria, las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.
*Eusko Jaurlaritzak Herri ikastetxeetan egin beharreko obrak Interes bereizikoak izendatzen dira, betiere ikastetxe horien mantentze-lanak Eusko Jaurlaritzarena bada eta lizentzia Eusko Jaurlaritzaren izenean badago ere %95eko hobaria izango dute obra horiek.	*Se considerarán de interés público las obras realizadas en Centros docentes públicos cuyo mantenimiento dependa del Gobierno Vasco y la titularidad de la licencia sea también del Gobierno Vasco. En estos casos se concederá la bonificación del 95%.
4.2 Lehendik dauden eraikinen gaineko eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari, ondorengo	4.2 Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras sobre Edificios existentes, en los siguientes

kasu hauetan

a) Ehuneko bat eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.

*%95eko hobaria, zergaren subjektu pasiboak irabazi-asmorik gabeko Energia Komunitate Berriztagarriari lotuta daudenean.
*%50eko hobaria beste kasuetan.

%95eko hobaria aplikatzeko, Energia Komunitate Berriztagarrien Entitate baten kidea dela adierazten duen egiaztagiria aurkeztu beharko da hobariaren eskaerarekin batera.

b) A edo B motako energia etiketa bat lortzeko energia birgaikuntza xede dutenak.

*%85eko hobaria izango dute A kalifikazioa lortzen dutenek.
*%70koa, B kalifikazioa lortzen dutenek.

c) Energia birgaikuntza eta irisgarritasuna barne hartzen dituen higiezinen birgaikuntza integrala xede dutenak. Horretarako, energia birgaikuntzaren xedeak izan behar du A edo B motako energia eraginkortasuneko etiketa bat lortzea. Hobariak izango dira:

*%95eko hobaria izango dute A kalifikazioa lortzen dutenek.
* %80koa, B kalifikazioa lortzen dutenek.

d) %95eko hobaria, Udalerriko auzo edo eremuetan energia berriztagarriak sartzeko birgaikuntza integraleko proiektuen testuinguruan egiten diren obrentzat.

Hobaria birgaitze-obraren xede den instalazioan egindako inbertsioari lotuta dago. Horrela, ondoko baldintzak hauek ezartzen dira inbertsio horren inguruan:

- Hobaria ez zaio aplikatuko araudiaren arabera derrigorrez inbertitu behar diren kopuruei. Hobaria aplikatuko zaio derrigorrezkotik gora egindako atalari.

supuestos:

a) Cuando se establezcan sistemas que permitan el aprovechamiento térmico o eléctrico de una centésima de energía solar u otras energías renovables. En caso de aplicación de esta bonificación, las instalaciones de generación de calor deberán contar con colectores o sistemas de calefacción y agua caliente sanitaria (ACS) homologados por la Administración competente, la bonificación será:

* Bonificación del 95% cuando los sujetos pasivos del impuesto estén vinculados a la Comunidad Energética Renovable sin ánimo de lucro.
* Bonificación del 50% en otros casos.

Para la aplicación de la bonificación del 95%, la solicitud de bonificación deberá ir acompañada de un certificado de pertenencia a una Entidad de Comunidades Energéticas Renovables.

b) Los destinados a la rehabilitación energética para obtener una etiqueta energética de clase A o B. La bonificación será:

*85% quienes obtengan la calificación A.
*70% para los que obtengan la calificación B.

c) Los destinados a la rehabilitación integral de inmuebles que incluyan la rehabilitación energética y la accesibilidad. Para ello, el objetivo de la rehabilitación energética debe ser obtener una etiqueta de eficiencia energética tipo A o B. La bonificación será:

*95% quienes obtengan la calificación A.
*80% para los que obtengan la calificación B.

d) Bonificación del 95% para las obras que se realicen en el contexto de proyectos de rehabilitación integral para la introducción de energías renovables en barrios o zonas del Municipio.

La bonificación está vinculada a la inversión realizada en la instalación objeto de la obra de rehabilitación. Así, se establecen las siguientes condiciones en relación con dicha inversión:

- La bonificación no será de aplicación a las cantidades que, de acuerdo con la normativa, deban invertirse obligatoriamente. La bonificación se aplicará a la parte que exceda de la

	obligatoria.
• Instalazio berriztagarria ezartzeari lotutako inbertsiotzat hartuko dira ondorengo gastuak: materialaren kostua, barne hartuko direlarik instalazioa osatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak (esaterako, FV sorkuntza panelak, kableatu elektrikoa, inbertsoreak...); eta obra edota instalazioetatik eratorritako nahitaezko kostuak (igeltserotza, iturgintza, etab.).	• Se considerarán inversiones vinculadas a la implantación de la instalación renovable los siguientes gastos: el coste del material, incluyendo todos los elementos necesarios para completar la instalación (por ejemplo, paneles de generación FV, cableado eléctrico, inversores...); y los costes obligatorios derivados de obras y/o instalaciones (albañilería, fontanería, etc.).
Inbertsioaren kostutik kanpo utziko dira ez direnak beharrezkoak instalazioa gauzatzeko eta ez dutenak helburu zuzen instalazioaren burutzea.	Se excluirán del coste de o los que no sean necesarios para la ejecución de la instalación y no tengan por objeto la correcta ejecución de la misma.
• Baldin eta instalazioaren atal bat derrigorrezkoa bada araudiaren arabera, elementu amankomunen gastua modu proportzionalean kalkulatuko da, derrigorrezko eta gehigarrizko atalen potentzien arabera.	• En el caso de que una parte de la instalación sea obligatoria de acuerdo con la normativa, el gasto de los elementos comunes se calculará proporcionalmente en función de las potencias de las secciones obligatoria y adicional.
• Hobaria aplikatu ahal izateko, interesdunak inbertsioari lotutako gastua modu banakatuan, partidaz partida, aurkeztu beharko du. (aldaketa GAO 2022-05-11)	• Para poder aplicar la bonificación, el interesado deberá presentar el gasto asociado a la inversión de forma individualizada, partida por partida. (modificación GAO 11-05-2022)
4.3.Zerga-kuotaren %90eko hobaria jaso ahal izango dute mugikortasun arazoak dutenen sarbide eta bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten obrek. Hobari hori soilik izango dute administrazio publikoek sustatutako obrek, zuzenean nahiz hitzartutako sustapen bidez.	4.3 Podrán acceder a una bonificación del 90% de la cuota tributaria las obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de las personas con dificultades de movilidad. Dicha bonificación únicamente se aplicará a las que sean promovidas por las administraciones públicas, bien directamente, bien mediante promociones concertadas.
5.-Gerta daiteke hobariren bat baino gehiago jasotzeko eskubidea aldi berean izatea. Horrela gertatzen denean,zergadunarentzat onuragarriena dena aplikatuko da.	5.En caso de coincidencia de algún supuesto o más de bonificación, se aplicará la que resulte más favorable al contribuyente.
6.-Aurreko idatz zatian arautuetako hobari fiskalen onuradun izan ahal izateko ezin da udal ogasunean zorrik izan. Espediente bakar batean pertsona bat baino gehiago baldin badago inplikaturik eta horietakoren batek udal ogasunean zorrik baldin badu, hobari fiskala kalkulatzerakoan zordunari dagokin ehunekoa deskontatuko da. Aldez aurretik interesatu guztiei 10 eguneko entzunaldia emango zaie. Epe horretan, dauden zorren espedientea ebatzi beharko da.	6. Para resultar beneficiario de los beneficios fiscales regulados en los anteriores apartados, no se puede ser deudor de la Hacienda Municipal. En el supuesto de que en un mismo expediente haya varias personas implicadas, y uno de ellos resulte ser deudor de la Hacienda Municipal, a la hora de hacer el cálculo del beneficio fiscal, se descontará el porcentaje del mismo que corresponda al deudor, previa audiencia a todos los interesados de 10 días. En ese plazo se deberá resolver el expediente de débitos existente.

7.-Orokorrean, onura fiskal guztiak espresuki eta idatziz eskatu behar dira. Horrela, interesatuek eskaera egin beharko dute eraikitzeko baimena jakinarazten zaion ondorengo 2 hileko epean, betiere eskatutako onura fiskalak ez badu epe zehatza. Eskaerarekin batera, alegatutako onura fiskala emateko zioarenfrogagiria eman behar da.

7. Con carácter general todos los beneficios fiscales tiene carácter rogado, debiendo ser solicitados por los interesados en el plazo de dos meses a partir de la notificación de la correspondiente licencia Urbanística, excepto que tengan un plazo específico. Junto con la solicitud se deberá presentar documentación acreditativa de la causa que de derecho al beneficio fiscal.

3. SUBJEKTU PASIBOAK

3.- SUJETOS PASIVOS

6. artikulua.

Artículo 6.

1.- Eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisiko, pertsona juridiko eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35 artikuluaren 3 apartatuak aipatzen dituen entitateak dira, zergadun gisa, Zerga honen subjektu pasiboak, horiek egiten diren ondasun higiezinaren titularrak izan edo ez.

1.- Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyentes, las personas físicas, personas jurídicas o entidades del apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquélla.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua jasaten dituena izango da eraikuntza, instalazio edo obraren jabea.

A los efectos previstos en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

2.- Eraikuntza, instalazio edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, beharrezko lizentziak eskatu, erantzukizunezko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat hartuko dira.

2.- En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente, tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias, o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas, o realicen las construcciones, instalaciones u obras.

Ordezkoak zergadunari exijitu ahal izango dio ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

4. OINARRI EZARGARRIA

4.- BASE IMPONIBLE

7. artikulua.

Artículo 7.

1.Eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuak eratzen du Zergaren oinarri ezargarria; ondorio horietarako, kostu hori eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostu materiala dela ulertzen da.

1.- La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquélla.

2.-Oinarri ezargarritik kanpo geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta erregimen berezietako antzeko beste zergak, eraikuntza, instalazio edo obrekin lotuta egon litezkeen tasa, prezio publiko eta udal mailako gainerako ondare-prestazioak, eta, orobat, profesionalen ordainsariak, kontratistaren mozkin enpresariala eta hertsi-hertsian exekuzioaren kostu materiala osatzen ez

2.- No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio empresarial del

duten bestelako kontzeptuak.

3.-Aurreko paragrafoetan adierazitako ezaugarriak dituen aurrekonturik ez dagoenean, eta arauzko baimenik ez duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean, zerga-oinarria udal teknikariek ezarriko dute, proiekturako aurreikusitako kostuaren arabera.

5. TRIBUTU KUOTA

8. artikulua.

Oinarri ezargarriari eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

6. SORTZAPENA

9.- artikulua.

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan sortzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

7. KUDEAKETA

10.- artikulua.

Lizentzia eman edo erantzukizunezko aitorpena zein aurretiazko komunikazioa aurkezten bada, edo, lizentzia oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe egonik edo aitorpena zein komunikazioa oraindik ez aurkezturik, eraikuntza, instalazio edo obra hasten bada, konturako behin-behineko likidazio bat egingo da, oinarri ezargarria honela kalkulatuta:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, betiere kasuan kasuko elkargo ofizialak hura bisatu badu, baldintza hori nahitaezkoa denean.

b) Ordenantza fiskalak propio ezarritako indize edo moduluen arabera, ordenantza horrek hala ezartzen duenean.

11.-artikulua.

Dagokion lizentzia eman ondoren lehen proiektua aldatuko balitz, behin-behineko likidazio berri bat egiteko aurrekontu berria aurkeztu beharko da,

contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

3.- En el supuesto de inexistencia de presupuesto con las características indicadas en los párrafos anteriores, así como en el caso de construcciones, instalaciones u obras para las que no se haya obtenido la preceptiva licencia, la base imponible será determinada por los técnicos municipales de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

5.- CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 8.

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el Anexo.

6.- DEVENGO

Artículo 9.

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

7.- GESTIÓN

Artículo 10.

Cuando se conceda la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o la comunicación previa, o cuando no habiéndose solicitado, concedido o denegado aún aquella o presentado éstas, se inicie la construcción, instalación u obra, se practicará una liquidación provisional a cuenta, determinándose la base imponible:

a) En función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente cuando ello constituya un requisito preceptivo.

b) Cuando la ordenanza fiscal así lo prevea, en función de los índices o módulos que ésta establezca al efecto.

Artículo 11.

Si concedida la correspondiente licencia se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una

lehen aurrekontua garestitzen den zenbatekoaren arabera.

nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

12.- artikulua.

Artículo 12.

1.- Eraikuntza, instalazio edo obra amaitutakoan, eta haren kostu erreal eta efektiboa aintzat harturik, Udalak, bidezko egiaztapen administratiboa egin ondoren, aurreko apartatuan aipatutako oinarri ezargarria aldatuko du, hala badagokio. Kasu horretan, behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari behar den zenbatekoa eskatu edo, hala bada, itzuliko dio.

1.- A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que le corresponda.

2.- Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo obra behin-behinekoz onartu ondoko hilabetean egoera horren berri eman beharko da Udal Administrazioak eskuratuko dion inprimaki batean; horrekin batera obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, dagokion elkargo profesionalak onartua, horretarako aukera dagoenean behintzat, eta ziurtagiri horretan obren kostua osoa azalduko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria-mozkina eta horien ondorioz sor daitezkeen gainerako guztiak barne direla.

2.- A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la Administración Municipal, acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el Colegio Profesional correspondiente, cuando sea viable, por la que se certifique el coste total de las obras incluidos los derechos facultativos del proyecto y dirección, beneficio industrial y otros que puedan existir por motivo de los mismos.

13.- artikulua.

Artículo 13.

Zergaren likidazioaren ondorioetarako, administrazioaren isiltasunez emandako baimenek berariaz emandako baimenen eragin berbera izango dute.

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrán el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

14.- artikulua.

Artículo 14.

Ordenantza honetan arautzen den zergaren likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokionez eta, aldi berean, zerga arloko arau-hausteen kalifikazioari eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zigorren zehaztapenari dagokionez, Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto regulado en esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria.

15.- artikulua.

Artículo 15.

Baimenaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egingo ez dituela adierazten badu horretarako berariaz egindako idazki baten bidez, Udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo erabat baliogabetuko du.

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

16.- artikulua.

Baimen iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuli edo baliogabetu egingo du, titularrak berritzeko eskatu eta udalak onartzen badu.

8. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau bere eranskinarekin batera onartu da eta 2023ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du aldaketarik egin edo derogatzen ez den bitartean.

Artículo 16.

Caducada una licencia, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

8.- DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza con su Anexo en vigor el 1 de enero de 2.023 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

004.01.- ERANSKINA I

004.01.- ANEXO I

01 - ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA			01 - IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS
1.-12.000 eurotik beherako kostua duten obrak	0,00	%	1.-Obras con coste inferior a 12.000 euros
2.-Merkataritza-lokal txikiak berritzeko, 60.000 eurotik beherako kostua duten obrak	0,00	%	2.-Obras de rehabilitación en pequeños locales comerciales con coste inferior a 60.000 euros
3.-Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Bizigune programa barruan burututako obrak	2,00	%	3.-Obras realizadas dentro de los programas de Bizigune impulsados por el Gobierno Vasco
4.-Erregimen Orokorreko Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko obrak	2,00	%	4.-Obras de construcción de viviendas de protección oficial de regimen general
5.-Erregimen Tasatutako Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko obrak	3,50	%	5.-Obras de construcción de viviendas de protección oficial de régimen tasado
6.-Obra txikiak	4,00	%	6.-Obras menores
7.-Obra handiak	5,00	%	7.-Obras mayores
8.-Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera batekin lotutako hirigintza-jarduera oro, betiere jarduera hori nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueraren	1,65	%	8.-Toda actuación urbanística relacionada con una actividad agropecuaria siempre que este a nombre del titular de la actividad agropecuaria: coste

titularraren izenean badago: 12.000 eurotik gorako kostua.			superior a 12.000 euros
9.-Nekazaritza jarduerarekin zerikusia duten etxebizitzetarako xedea duten eraikinetako obrak, betiere etxebizitza hori ustiapenaren titularraren ohiko etxebizitza gisa erabiltzen bada (dedikazio osoa duenean): 12.000 eurotik gorako kostua	1,65	%	9.-Obras en edificios destinados a vivienda relacionados con actividades de agricultura, siempre que la citada vivienda sea utilizada como vivienda habitual del titular de la explotación (con dedicación total): Coste superior a 12.000 €
10.- 10 urte bitarteko bizileku eraikinetako teilatu eta terraza komunak birgaitzea eta eraldatzea, eta fatxadak birgaitzea, garbitzea edo txukuntzea.	2,50	%	10.-Rehabilitación y transformación de cubiertas y terrazas comunes en edificios de viviendas de hasta 10 años de antigüedad, y rehabilitación, limpieza o arreglo de fachadas.
11.- 10 urte bitarteko bizileku eraikinetan igogailuak jartzea, arrapalak, plataformak, jasogailuak, elementuak eta atariaren eta igigailuaren arteko desnibela gainditzeko balio duen beste edozein obra.	2,50	%	11.-Instalación de ascensores, rampas, plataformas, montacargas, elementos y cualquier otra obra para salvar el desnivel entre la entrada y el ascensor en edificios de viviendas de hasta 10 años de antigüedad.
12.-Arau subsidiarioetan babestu eta kontzerbatzeko izaerez jasoriko eraikinak.	1,00	%	12.-Edificios incluidos en el carácter de protección y conservación en las normas subsidiarias.
13.-Udalak onarturiko zaharberritze egitasmoetan jasoriko eraikinak.	1,00	€	13.-Edificios incluidos en los proyectos de rehabilitación aprobados por el Ayuntamiento.
UDALBATZAK IZENDATUTAKO INTERES BEREZIKO EDO UDALAREN MESEDERAKO OBRATZAT JOTAKO OBRAK.			OBRAS CALIFICADAS POR EL PLENO MUNICIPAL PARA OBRAS DE ESPECIAL INTERÉS O UTILIDAD MUNICIPAL.
14.-Mugikortasun arazoak dauzkaten lagunentzat etxebizitza barruan irisgarritasuna eta bizi egokitasuna errazteko egindako	0,25	%	14.-Obras realizadas para facilitar la accesibilidad y habitabilidad dentro de la vivienda a personas con problemas de movilidad. Será

obrak. Dagokion herri administrazioak aurretik emandako txostena beharko da, non adieraziko beharko baita aipatu obrak premiazkoak direla.			necesario un informe previamente emitido por la administración pública correspondiente, en el que se hará constar que dichas obras son urgentes.
15.-Teilatu eta terraza komunak birgaitzea eta eraldatzea, eta fatxadak birgaitzea garbitzea edo txukuntzea, 10 urte baino gehiagoko etxeak izan eta bizitokitarako erabiltzen badira.	0,25	%	15.-Rehabilitación y transformación de cubiertas y terrazas comunes, y rehabilitación de fachadas, limpieza o arreglo, si se trata de viviendas de más de 10 años y destinadas a vivienda.
16.-Igogailuak jartzea igogailurik ez duten etxeetan; eta arrapalak, plataformak, jasogailuak, elementuak eta atariaren eta igogailuaren arteko desnibela gainditzeko balio duen beste edozein obra, 10 urte baino gehiagoko etxeak izan eta bizitokitarako erabiltzen badira.	0,25	%	16.-Instalación de ascensores en viviendas sin ascensor; y rampas, andenes, ascensores, elementos y cualquier otra obra que sirva para salvar el desnivel entre el portal y el ascensor, si se trata de viviendas con una antigüedad superior a 10 años y destinadas a vivienda.

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1.-1,65eko bi tasa murriztuak aplikatzeko, nekazaritzako ustiategitzat hartuko da Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan erregistratutako ustiategia.

Sagardotegien kasuan, soilik aplikagarriak izango zaio tarifa hau Sagardo ekoizpenari lotutako hirigintza-jarduerari.

2.- 9. tarifa aplikatzeko, dedikazio osoa dagoela ulertuko da etxebizitzan erroldatutako pertsonen diru-sarrerak nekazaritza-ustiategitik bakarrik datozenean.

3.- Kontuan hartuko da obra handia eta obra txikia bereizteko, indarrean dagoen udal hirigintza-araudia.

4.- Autolikidazio erregimenaren barne kudeatuko da.

NORMAS DE APLICACIÓN DE LA TARIFA

1.- A efectos de la aplicación de los dos tipos reducidos de 1,65, se entenderá por explotación agraria la registrada en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En el caso de las sidrerías, esta tarifa sólo será aplicable a la actividad urbanística vinculada a la producción de sidra.

2.- A los efectos de la aplicación de la tarifa 9, se entenderá que existe dedicación plena cuando los ingresos de las personas empadronadas en la vivienda procedan exclusivamente de la explotación agraria.

3.- La separación entre obra mayor y obra menor se realizará teniendo en cuenta la normativa urbanística municipal vigente.

4.- El Impuesto se gestionará dentro del régimen de autoliquidación.

5.- 12 eta 13. Karga tasak aplikatzeko kontuan hartuko da ondoko araua: Obra horiek izan daitezke barrualdeko edo kanpoaldeko amaierak, zerbitzuen instala zioak eta sareak, hormak eta barruko banaketa, fatxadak eta itxiturak, barruko edo kanpoko arotzeria, estalkiak, iragazgaizteak eta isolamenduak, alde batzuen konponketak eta egiturak sendotzea. Ez dira aurreko kasuetan sartuko ondoko jarduera hauek: • Planta berriko eraikuntzak, lehendik dauden eraikinekiko bananduak nahiz erantsiak izan. • Lehendik dagoen eraikuntza baten barrua hustu edo zati batez edo osorik ordezkatu beharra dagoenean. • Lehendik dagoen eraikinaren eraikuntza-aprobetxamendua gehitzea eragiten dutenean (azalera eraikia edo bolumena). • Lehendik dagoen eraikinean etxebizitza kopurua gehitzea eragiten duenean. • Lehendik beste erabilera zuten lokalei edo guneei etxebizitza, industria edo merkataritza (hirugarren sektoreko) erabilera emateko xedea dutenean.	5.-Para la aplicación de los tipos de gravamen 12 y 13, se tendrá en cuenta la siguiente norma: Se considerarán comprendidas dentro de dichas obras las que afecten a los acabados interiores o exteriores, instalaciones y redes de servicio, tabiquería y distribución interior, fachadas y cerramientos, carpinterías interiores o exteriores, cubiertas, impermeabilizaciones y aislamientos, reparación parcial y refuerzos de estructuras. No se entenderán incluidas dentro de los casos arriba indicados las siguientes actuaciones: • Las construcciones de nueva planta, sean aisladas o añadidas a edificios existentes. • Las que se requieran el vaciado interior o la sustitución parcial o total de una edificación existente. • Las que conlleven un aumento del aprovechamiento edificatorio (superficie construida o volumen) que posee el edificio preexistente. • Las que supongan un aumento del número de viviendas contenido en el edificio preexistente. • Las que tengan por fin reconvertir o acondicionar al uso de vivienda, industrial o comercial (terciario) locales o espacios con uso previo diferente.

004.02.- ERANSKINA II	**004.02.- ANEXO II**
01 - 02 - ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA: HOBARIAK	01 - 02 - IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES Y OBRAS: BONIFICACIONES

Eraikuntzek, instalazioek edo obrek %95era arteko hobaria izango dute, interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Osoko Bilkurak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. *Eusko Jaurlaritzak Herri ikastetxeetan egin beharreko obrak Interes berezikoak	95era arte/ Hasta el 95	%	Gozarán de una bonificación de hasta 95% de la cuota tributaria, las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros. Se consideraran de

izendatzen dira, betiere ikastetxe horien mantentze-lanak Eusko Jaurlaritzarena bada eta lizentzia Eusko Jaurlaritzaren izenean badago ere %95eko hobaria izango dute obra horiek. (aldaketa gao2012-09-24)			interés público las obras realizadas en Centros docentes públicos cuyo mantenimiento dependa del Gobierno Vasco y la titularidad de la licencia sea también del Gobierno Vasco .En estos casos se concederá la bonificación del 95%(modificación BOG 24-09-2012)
LEHENDIK DAUDEN ERAIKINEN GAINEKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGARI, ONDORENGO KASU HAUETAN:			IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS SOBRE EDIFICIOS EXISTENTES, EN LOS SIGUIENTES SUPUESTOS:
5. artikulua, 4.2	95era arte/ Hasta el 95	%	Artículo 5, 4.2
5. artikulua, 4.3	90	%	Artículo 5, 4.3